

6. PIEZA

BEZEROEKIKO HARREMANA

Orokorrean, berezoekin izango ditugun harremanak, sare sozialen, telefonoaren bitartez eta pertsonalak izango dira. Ludotekan dauden hezitzaileek argituko dituzte telefonoz jasotzen dituzten zalantzak, sare sozialetan beste aditu batzuk egongo dira bezeroen eskaintzetarako eta noski pertsonalak izatea nahiago badute, gu laurok ludotekan egongo gara informazioa emateko prest.

Bestalde, bezero berriak erakartzeko, teknika hauek erabiliko ditugu:

- Bezero guztiek lehen hilabetean kuota erdia ordainduko dute.
- Bi haur baino gehiagoko familiei, kuota desberdina eta merkeagoa egingo diogu.
- Lagunak ekarriz gero, deskontuak izango dituzte.
- Promozioak egingo ditugu noizean behin, abantail batzuk ematen.
- Dirua arazo bat izango balitz, gurekin kontaktuan jarri ahalko dira horretaz hitz egiteko eta konponbide bat bilatzeko.

Gure bezeroek, harpidetzaren bidez integratuta egongo dira. Kurtsoaren hasieran izena emango dute lehenengo kuotarekin, eta urte osoan ludotekan integratuta egongo dira. Noski, edozein momentuan bazkidetza kendu ahal dute arazorik gabe.

Hasieran pixkat zailagoa izango da bezeroen nahietara egokitzea, baina denborarekin, amoldatuko gara egoerei, eta gure zerbitzuak hobetzeko aukera izango dugu, gauza berriak eskaitzen eta gure bezeroen proposamenak ebaluatzen.



